




ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

16 Urtea 1934'ko Joñaila 184 Zenbakia

AITA SANTUAREN EGUNA DALA-TA

88



TSAILAREN 12'an lurbira osoan «Aita Santuaren eguna» egin da. Guziok dakigunez, Pio Amaikagañena Otsailaren 5'ean kristau guzien Buru izateko aukeratua izan zan. Eta zazpi egun geroago San Pedro'ren elizan koroitua. Katoliko guziak egun au artu dute, ba, beren biotzetako

maitetasuna Ari erakusteko.

Egun ortan egin diran jai eder eta ospetsuak nor ez dute afitu? Ez uri ta efi aundietan bakafik, baizik efitxo askotan ere elizkizun eta ondoreko entzukizun (veladas) pozgafi ta sutsuak eratu bai dira.

Fededun eta fedegabeen afean, Pio Amaikagañenaren irudi berezi ta xaloa benetan agertu da ta berofi nonnai zaion begiramen aundia ere bai.

«Zeruko Argia'ren» irakurleai atsegin izango zaie noski, Pio Amaikagañenak gaurko egunean duen indaraz apurtxo bat ikastea.

Pio XI-gañena

Akiles Ratti zeritzaion len. Ikastaro luzeetan eta liburuei josirik, liburutegietako lanetan bizi zan. Onetan XV-gañen Beneditok eginkizun guztiz berezia eman zion; Polonia'ko Ikertzale (Visitadore) egin zun 1918'an, geroxago berartako bere Ordezkar. Ondoren Milan'go Goigotzai egin zun eta 1922'an Kristau-talde osoaren Burutako aukeratua izan zan.

Goraldi, oñen laxter datxizkonak adieraziz daude, Pio Amaikagafenari bereizgafi aundiak ezagun zitzaizkiola. Katolikoek zein zelaletan ez zu eskurik sartu? Nun ezta agertu Aren argitasuna ta begi zofotza?

Misioen alde

Katolikosuna zabaltzeko ta edatzeko bideak bere «Rerum Novarum» agiriaz zabaldu ditu. Eta Misioetako azalkundeak (exposizioak) jenderik otzenak ere siñismenari laguntzeko gerturik utzi zitun. Eta «Agencia Fides» en» Zuzendariak orain gutxi zionez, zabalkundeak orain artu duen bizia ain azkafa dal: «Azkeneko» amar urtetan misioetarako izan dan bezin bultzaldi bizirik ezta aufeko eunki bat bakafean ikusi», dio, lufeko bost aldetako misiotegiak ikusi ondorean.

«Ekintza Katolikoa»

«Ekintza Katolikoa»ren» Aita Santua deituko dute ondorekoak Pio Amaikagafena. Eta izen ori naikoa luke aomen ez-ilkoia izateko. Pio Amaikagafenaren amets guziak lagunarte ori lurberako azken baztafetaraño zabaltzea ta safaztea izan dira. Ekintza katolikoaz zenbat belariri itzaldia egin dien nork zenbatu ote lezake? Aita Santuaren ikustaldirik nekez igarotzen zaio, gai ontaz aita kezkatiazen antzean itzezin gabe. Ekintza katolikoaz joiek lanak eta oiek nekeak artu ditu! Italia'ko Gobernuak Ekintza katolikoaren lantegiak itxi nai izan zitunean, bere aurka zofotz atera zala, guziok gogoan dezute. Eta Agintari aiek Aren egintza maiteena pakean uzten zutela ikusteraño, gogor jafi ta «non possumus» «ezin degun utzi» zion. Ekintza katolikoaz agiri askotan itzezin du.

Efidiekiko artu-emanetan

Efidi askotako bizibideak aldaketa gogofak izan dituzte Aita Santu onen egunetan. Askotan erakutsi du, ordea, zein oñafi bear ditun Latefiak (Estaduak). Aberzaletasun osasungafiaren neufiak argiro erakutsi ditu. Efidi askorekin artu-emanetan Berau asi da; Amairu Latefik onen egunetan Aita Santuakiko Alkartzea (Concordatoa) egin dute. Italiak bere bizibidea zuzendu nai izan zuan. Mussolini'k bere afebagandik onu au artu omen zuan: «Aita Santuaren aurka ez joan, gero; burua ausi-ta aterako aiz bestenaz.» Eta Mussolinik bere afebaren esanari etzion sofarena egin. Edesti (istoriaren) otsa ere ori bera zan ezker. Urte bat ez zu Alemaniak Italiaren bidez jotzen zula. Eta lurberako egunkari guziak Berlin'en eta Efomaren arteko artu-emanen befiak afetaz biltzen zituzten. Juduen bultzadaz Aita Santuarekin artu emanik nai ez duten Latefiak ere, afiturik daude Aita Santuaren begi zofotzaz.

Eriarteko bizitza

Gaurko efidietako arlorik (eginbiderik) zalena, langileena izanik, Aita Santua axolik gabe etziteken egon. Befogei ta iru urte Leon Amairugafenak oyu egin zuela zuzenbide au erakusteko. Baño aren otsa, batzuen ez-jakia eta beste batzuen entzun gogofez etzan aditu. Gaitza audituz zijoan. Langabetasunak itzal iluna ematen miloika sendiri (familietakoi). Artean Pio Amaikagafen ots sendoa entzun da. «Quadragesimo anno» agirian gizarterko arloari lotzen zaio.

Gaurko bizibidea zuzen eta zofotz begizatzen du. Sizialismoaren asmo ezin beteak agirian jartzen ditu. Aberatsen ezin-asea gaitzesten du ta jabetasunari bere neufiak ezartzen dizkio. Eta azkenean gizarteko bizibide befiaren efañua agertzen du. Bizibide senda ta zuzenagoa, bizi-maletatik zeto-fena baño. Au ezta alkafen ezin eramanetik sortzen, baizik alkafen laguntzatik. «Quadragessimo anno» agiriak Alkartzeari betiko bizibidea damaio. Urte asko joango dira agiri onek alde ontatik dakafen ona agertzerako; Italia, Portugal, Austria, Suiza eta Alemania alkartze-bidez sartzen asi dira beintzat.

Jakintza bidetan

Katolikoen jakintzari ere asko eragin dio. Filosofi kristau erazkoa efaztutzeko «Studiorum ducem» agirian bulkatzen zigun. Azken-aldi ontan Apaiz-



gaitegi ta Katolikoen Ikastol Nagusietako jakintza-bideak sendotzeko «Deus scientiarum Dominus» erabakia argitara du. Ikastol askotan bertatik beren ikastaroak aldatu dituzte; ikasgaiak ugaritu dira, ikasitakoen agerketa aldiak ere bai, eta Irakasle izateko ikastaro befiak jafi. Apaiz katolikoetan aldaketa aukeraz luze auzerapen aundia ekafiko dutela, eztago zer esanik.

Pio Amaikagafenak oraindik beste jakintza bide befi askotara ere bere ardura zabaldu du. Baño esanak naikoa dira Aita Santuaren efañua zenbateñoak dan oartzeko.

Jaunak urte askoz zainduko al digu Pio Amaikagafenaren bizia Eliza katolikoaren eta gizadi osoaren onerako!—**MAIZENA.**

Bazko-Loreak



¿Nundik aharai (1) ori?.. Eztai-loraketa bezain, mila ezkilek gaindu dute gaur zerua. Mila ezkilek oiugigute:

«Igandeen-igande,

Arimen Udalen... Udalen... Udalen...»

Zeru urdiña iñara alaiek ezpaitute oraindik ufa, ¿nundik aharai ori?.. Udalen... Udalen...

* * *

Ilundurak artua Eleiza sortubefia. Yosulafi-azpian eortzia. Iñafi-gaínean, oi danez, «Hic jacet» ezaguna eraíiko dute nunbait...

—Baña... ez, yuduak! Etzenuten zuen ari-ora Yosulren bizitz-argia itzali. Yainko izanez, bere baitan zuen bizitza ta eriotzaren gíltza. Arimak egin zion, nai izan baitzuen. Baña berez duen indafez iñafia yaso du. Zoazkete, yuduak, ta ikusazute...

—Ta igo zuek ere, Mari oiek, ilunondo baita, ta Mari Malen, aufetik, araturik baitago...

Baña zuk, ene arima ofek, galde or dator- kizun Mari Malen'eri:

«—Esaidazu, Mari, bidean ikusia.

«—Kristo'ren ilobi utsa.

«—Bera bart garaiki piztu baita.

«—Aingeru zuriek, iloial ta yaunziak.

«Piztu da nere itxaroa—Galilai'ra aufetik of diyoa...»

Galilai'ra gaitezen gu ere, ta bil ditzagun Bazko-loreak...

* * *

¿Nundik aharai ori? Eztai-loraketa bezain, mila ezkilek gaindu dute gaur zerua. Mila ezkilek oiugigute:

«Igandeen-igande,

Arimen Udalen... Udalen... Udalen...»

Zeru urdiña iñara alaiek ezpaitute oraindik ufa, ¿nundik aharai ori?.. Udalen... Udalen...

ZARAYA.

(1) Aharai=pozezko kantua.



RESURREXIT!! Piztu da!!



Jesus'ek bere eriotza Apostoluei adierazten zien bakoitzean erasten zuan: «*ta irugafen egunean* beriz piztuko naiz» (Mat. 17-23; 20-19; Marc. 9-30; 10-34; Luc. 18-33). Ilen artetik «beriz piztutzen naizenean Galileara auferatuko natzaizue» (Mat. 26-32). Juduak ezagungafi bat Jaungoikotzat ezagutzeko eskatzean esan zien: Gizalde gaizto ta ezkontzausle onek ezagungafia eskatzen dit; eta Jonas'en ezagungafia besterik etzaio emango: Jonas iru egun eta iru gau ez balearen efaietan egon bai-zan; Gizasemea ere alaxe egongo da iru gau ta egun lufaren biotzean.» (Mat. 12-39, 40). Jesus'ek bere itza beteko du. Ofen bildufa Aren iltzaleak berekin zeukaten. Argatik Pilato'ri esan zioten: «Gezurti afeak oraindik bizi zanean esan zuan: 'Irugafen eguna ezkeroz beriz piztuko naiz'. Itz auek gezurtatu nai zituzten. Soldaduak artarako jafi zituzten ilobia zaintzen. Baño berek izan ziran Jesus'en¹ piztueraren lenengo ikasleak. Jesus piztu ta atera zanean zeruko aingeru batek ateko afa irauli zuan,² eta areñ gañean jafi zan. Soldaduak igesi joan ziran. Alakorik jakin gabe Jesus'en gorputza igurtzitzeko ukenduak arturik iru Mariak jetxi ziran. Aiek lenik aingeruak ikusi zituzten.³ Jesus piztu zala aiek esan zioten, ilobi utsa⁴ erakutsiz. Gero Jerusalem'erakoan bi-

dean agertu zitzairen. Magdalena'ri ilobi ondoan. Egun berean Emaus'era zijoa-zen bi apostoluei; Simon Pedro'ri bereizian; gero Tomas ez beste guziei; andik zortzigafenean Tomas berekin zegoenean. Tiberiades'en itsas baztafean: gero

baita Jakobo Apostoluari ere Paulo Apostoluak dionez eta azkenean zerura baño len bostetan eun lagunei eta oietatik oraindik asko bizi zirala au berak idaztean esaten digu Paulo Apostoluak. (I Cor. 15-8). Jesus'ek beroiekin itze-
gin zun, jan zun; eskuak, oñak, eta saietsa ikusteko ta ukitzeko eman zizki-
en. Berogei egunez agertuz ibili zitzairen eta azkenean beren begietan zerura
igo zitzairen. Onelako egia nork jafi ote lezake ezta-baian? Piztu da! Alleluja!
Poztu gaitezen! Alleluja!

Giro berien zai



*Ikus, lagunok,
urbil bai dugun Udaberi...
Gazte geranok
giro berien ameslari...*



Yeiki, begira:

*loremin bai ote sagasti...
Bai-doañ erekara
arätsez xoxoa kantari.
Borda ezetsirik mendira
bai-dotzin ardiak alaiki,
ala mendian arkume-zarata
entzun al-ote sailean ibilki...
¡Ots bai dagin lizzardian albokak:
giro berien aintzindari...!*

*Asi gaiten argi, kolorez;
arnas gaiten aize zabalez!
Eder sagasti elur-yantzipean...
¡Ederago osto la lorez...!*



*Ikus, lagunok,
urbil bai-dugun Udaberi.
Gazte geranok
giro berien ameslari...*

GAZTELU

*Ikus, ego bétik lertxoiñak
leño-leño bai datzan goialdera.
Ala txoriak binaka yo duten.
elkaren leyan kabi egitera...*

*¿Urbil bai ote Udaberi?
Egunak luze, aroa epeltzen...
Gu, beraz, giro berien usaiki.*

*Negu agureak yarduki gaitzez
asper gaitu, bai, naiko. Yarái beza
subaztereñan gaztañak eretzen...
¡Gu landara: Biziak dei bezela!*



GALDE-ERANTZUNAK

Jauna artzeko barua noiz galtzen dan

«Gaxo bat zaintzen nengoan, eta gauerdia ezkeror salda eskatu zidan. Ez nekin gatzik bai ote zun eta zer ordu zen jakin gabe probatu egin nun, baño iretsi gabe. Gero Jauna artutzea ez nintzen ausartu. Artu al nezaken? Mirabe bat.

Mirabe ona: zure galdeak bi gauza argitutzeko bidea ematen dit. Lena gau-eko amabiak ematen asiz gero, jakiñik edo jakin gabe barua austen duenak, egun artan Jauna ez dezake artu, ilabete gaxorik daramana ezpada beintzat. Onela gaxo dagoenean eta laxter sendatzeko itxoipenik gabe, astean bein edo bi aldiz barua ausi-ta Jauna artu lezake. Eskubide au Pío X-garfenak eman zuan. Agoan zerbait sartzez bakarrik, ezta barurik austen. Ura, esnea, salda edo agoan artu afen, iretsi gabe bota egiten danean ezta, ba, barurik austen. Geroztik ondoren Jauna lasa artu zenezaken. Barua austekoz, zerbait jangari edo edangari jan edo edan egin bear da, kanpotik artuz. Bestela ezta barurik austen. Agin edo ortz-artean gelditurik egon liteken jan apufak ezta barurik austen, oietatik edo zintzuratetik edo sudur bafenetik jario liteken odolak ere ez.

Jesu Kristo ¿noiz piztu zan?

Kristau guztiak bezala nik ere siñisten dut Jesu Kristo il ta irugarren egunean beñiro piztu zala. Baño ori ala ba'da, Elizak zergatik Larunbata Santuan piztuera gogorazi ta jai-egin? Ikasle batek.

Ikasle goretsia: Kristo Gure Jaunaren piztuera edo Berpizkundea, il eta irugarren egunean gertatu zan. Ostiralen aratsaldeko irurretan il zan; larunbata osoa illobian egin zuan; juduen asteko lenengo egunean (gure igandean) argi-sentiarrekin bateratsu beñiro piztu zan. Ebangelariak diotenez ori egiztaturik dago. Orain Eliza gure Amak Jesusen piztuera Larunbata Santuan gogoratzea, alde askotatik zegokiguna da. Lenengoz Jesus'en piztuera bere aur guzioi jai egiñazterako, Pizkunde egunean bear dan pozaldi iluntasun gabekorako guztia gertu nai dualako. Argatik larunbata oraindik ezta jai, jaiarako bidea baizik. Larunbatean, Jesusen piztuera gure begietan siñisgarri egiten duten elizkizunak jai dizkigu, Jesus'ek Jaungoiko dalako, berezkoa duen bizia, bere gorputzari ezari zion; eta berezkoa duen jainkozko bizia Elizari. Orixe adierazteko, suafitik ateratzen dan suaz, Elizak sua piztutzen du egun ortan; su ofen bidez argizaria piztutzen du ta kristau efiaren begietan jafiz oju-egiten «Kristo'ren argia»—«Jaungoikoari eskerak.» Argi ofen bidez gero Pazko aldiko argizari lodia, elizeko argi-ontzi itzalirik zeudenak eta beste arzari guztiak piztutzen ditu. Artean Jaungoikoaren neufigabeko maitetasunari kanturik gozoenak egiten dizkio, gizona galdurik ez uzteagatik, Jaungoikoak bere Semea, bizia galtzen utzi zuelako. Eta ilen artetik piztuz guziok pekatupetik askaturik uzten gaituela jakitera eman digulako. Egun ontan Elizak kristau beñiak egiteko ta sendotzeko bear ditun ura, bataio-afia (pontaria) eta sagarutzen ditu, baita bere Apiazgintza jasotzen dituenak ere. Jesus'en piztueraz itzegiten duten Lege zafeko irakurkizunak egun ontan esaten ditu. Eta oien ondoren Jaunari eskerak ematen dizkio, bere itzak beterik ikusten ditugulako. Ofatx, ba, zergatik Elizak piztuera larunbatan gogoratzen duan. Edo ondo al legoke elizkizun luze baño luzego ori iganderako uztea, ta arte guzian kristau eña Jesus il zaigulako iluntasun luzean idukitzea? A. I.

Gaude Virgo

Donostiar J. And. Abak. ereskidetua

CANTORES

CHORUS

Gau-de Vir - go*Ma-ter Chris-ti: Condem-na-tum quem vi-dí-sti.

Re-sur-ré - xit

Musical score for the first system, featuring Cantors and Chorus. The Cantors part is in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. The Chorus part is in bass clef. Dynamics include piano (P) and mezzo-forte (mf).

CANTORES

si - cut di - xit.

Gau-de lú-men cla - ri - ta - tis quem vi - di - sti con cla - va - tum.

Musical score for the second system, featuring Cantors. The Cantors part is in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. Dynamics include mezzo-forte (mf).

CHORUS

CANTORES

Re-su - re - xit

Gau - de magnum fle-tus ma-re: quem vi - di - sti ex - pi - rá - re

Musical score for the third system, featuring Chorus and Cantors. The Chorus part is in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. The Cantors part is in bass clef. Dynamics include piano (P).

CHORUS

CANTORES

Re-su-rre-xit


Gau - de flos o - do-ris mi - ri: quem vi - di - sti se - pe - lí - ri.

Musical score for the fourth system, featuring Chorus and Cantors. The Chorus part is in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. The Cantors part is in bass clef.

CHORUS

CANTORES


Re-su - re - xit Gau-de Ma - ter al-ma Chri-sti: glo - ri - ó - sum quem vi - dí - sti



CHORUS

rit.

Re - su - rre-xit si - cut di - xit. Al - le - lú - ia, al - le - lú - ia, Al - le - lú - - ia.



Cantus in honorem B. M. V. «che ti canta nel Tempo Pasquale dopo le Litanie in cambio del Tota pulchra» ita, P. Fabr. Telbananzi O. F. M. in «Breve Metodo... Milano 1726.» (Ex Cautuale Romano-Seraphicum-1939).

JOSE DEUNA LANGİĒLEN ZAITZAĒEA

(azkena)



Langiĕak bakarik? Nagusi eta dirudunak geiago!

Langiĕak beti apala izan bear du, baña ez uste dirudunak ez dutela apalak izan bear. Bai zera! Bekoak baño apaltasun geiago bear dute aberatsak, aberastasunak askotan afo-afo jartzen bai ditu. Zerbaitengatik esan zuan Jesukristok: «Ziñez esaten dizutet: aberatsa nekez sartuko da zeru-jaurefian. Erazago da gamelua ofatz-zuloan sartzea, aberatsa zeru-jaurefian baño» Langiĕak, ordea, bizi nai badu, apala izan bear du: bestela bizi ontako naigabeak ezin eramanekoa egingo diote bere biziera. Ofa zergatik ikusten dan gaur langiĕ askok ezdutela dirudun eta nagusinagako bear dan bezelako begiramendurik, erakuste txarrek okertu bai dituzte, sinistuerazi die berak bakarik dirala mundu ontan jaun ta jabe eta ortik dator berak bezela lan egin bearik ez dutenak ezin ikustean, berak nai luketen bezela dirua erabiltzen ezdutenai gofotua eukitzea eta gizaxoak eztira oartzen berak ere besteak bezin gaizki erabiliĕko lituztekela!

Jose Deuna langiĕe apal eta ixiĕa.

Etzan alakoa izan Nazaretako zurgintegian lan eta lan bizi izan zan Jose Deuna. Etzan bere aotik kezka edo esparik atera, etzion lanari uko edo iges egin. Jainkoaren Semearen aitordea izanik, etzuan berarentzat laguntza eta eskubide

berezirik eskatu. Zurgintegi txiki eta txiro artan estutu ta asaldatu gabe lan egin zuan isilik, alik eta Jesus ogeita amar urteetara urbildu zan arte eta langileak lotsatu etzitezen lana donetu nai izan zuan Jainkoari zurgin lana erakutsi zion. Langile eta ezlangileak asko ikasi beara daukagu beregandik! Ez al dizu ezer ere esaten ain zorionekoa izan zan Jose Deunaren bizi apal ixilak? Apalak izan bear degu guztiok, apaltasuna on guztietarako atea baita. «Gorätzen dana apaldua izango da: ta apaltzen dana, goratua.» Ate estutik sar zaitezte: aundia da, ba, ondamenerako atea, ta zabala ara daraman bidea ta asko dira andik sartzen diranak. Bizitzarako atea, beriz, zeñen estua, ta zeñen mear ara daraman bidea! ta gutxi dira adorotzen dutenak» Apaltasunik eztanian, nekez eramaten da lana, esku-lana neketsua baita, askotan zikiña, latza eta osasunerako kaltegarria.

Sendiaren maitetasuna.

Mundu onetara berez edo inor gabe jetxi ziteken Jainkoak, gurasoen bitartez agertu nai izan zuan. Ama bat euki nai izan zuan eta bere ama beti birjiña iraun zezan eran zuzendu zituan gauzak, lanbide artarako Jose Deuna aitordetzat aukeraturik. Berak bizitzeko etzuan inoren bearik, baña sendia donetu naririk eta aufferako kristau-sendiaren eredu edo ispiua izan genezaken, Nazaret bizi izan zan Jose eta Maria guztiz garbiaren menpean. Zein da, dio Elizak, bere sendi deuna gordetzeko aukeratu duan gizon zuzen ori? Jose Deuna! Onen itzalpean jafi du Jainkoak Jesusen Ama, egun sentia dan emakume zoragafi ori bere bizikide izan zan. Aurgiteko garaia eldu zaionean, Belen'a darama ta Jesus jaiotzean Josek darabil zeruko Aurura bere besoetan. Berak eraman zuan Belen, Nazaret eta Jerusalemara egin bear izan zituen ibilaldi guztietan, bere zaitzailea izan zan alik eta Jesus azi ta bere ikasbidea zabaltzen asi zan arte. Inoren bearik etzeukan Jainkoak, Joserren eskuetan jafi izan zan: onek aita on batek bezela bizitzeko etxea eman zion, azitzeko bear zuan jana iabazi, jatzeko bear zituen jantziak bilatu, izkutatzeiko bear zuan tokia egokitu, bizitzeko bear zuan lana erakutsi. Nazaretoko etxe artan guztia Josek agintzen zuan: zeruko aginduak berak jasotzen zituan, berari agintzen diote iges egiteko, Aua eta onen Ama arturik. Etzuan Jose Deunak bere bizitzan besterik egin, baizik sendiaren ardura euki. Zenbat irabaziko lukete langileak ark bezin maite ta ongi bere emazte eta aurfak zaituko balituzteke! Gaurko ikasbide txarrik, orde, ondatu egin ditu sendiak! Aurfak dituzten langileak oartu bear lirake bere sendiaren aziera dala lanik aundiena, dala etxean, dala kanpoan! Jose Deuna agintzen, Jesus bere menpean eta Ama Birjiña bere bizikide bezela lan guztietan ari laguntzen; ara, or, sendiaren eredu edo ispiu defa.

Langileen ardura, nork?

Aita Santuak nai du langile guztiak Jose Deuna eukitzea beren babes eta zaitzaletzat. Siñismenik ezdutenak ezdute ezertarako kontuan artuko bere laguntza, Aita Santuaren gogo eta asmo oietaz par egiñaz! Elizkoiak diranen artean ere badira batzuk iri-par gaiztoaz nai oiek artzen dituztenak, aintziñako gauzak izango balira bezela. Arpegira ematen digute bere gora-berak zuzentzeko, jasatasun eta otoitza besterik ezteguila agintzen. Ezta ori egia, baizik bidegabekeri aundia! Elizak beste inork baño lenago lan egin du ortarako, argi eta garbi itz egin izan die nagusi eta lagileai. Baña langile guztiak jakin bear dute gora berak zuzentzeko, beren alegiñak ez-ezik, otoitza ere beafezko gauza dala. Asmatu ditzatela nai dituzten bide guztiak, beti egia izango da Jainkoak diona:

«Etxea Jaunak ezpadu egiten, alperik dabilta bertan ari diran langileak» Jaunak dena zuzendu lezake, baña ortarako al degun guztia egitera beartzen gaitu eta gero eskeintzen digu bere laguntza. Ofegatik beti gora begiratu eta otoitz egin bear degu. Jose Deuna jañ izan du Elizak langileen ardura euki dezan eta zein bera bezelakoa ortarako? Zuek bezela, langile bat izan zan bere bizitza guztian, ikasi izan zuan zer dan langile izatea, ikusi zuan zer dan emazte eta aufentzat eguneroko ogia irabaztea. Ez ote zuan, berak ere, zuek bezelako nekerik ikusi? Zein da, ba, bera bezin zaitzañe ona? Nork eztu Joseren laguntza eskatuko?


Zorionekoak langile onak.

«Aurá, beriz, aziaz zijoañ ta kemenaz azkartzen: ta basoañ bizi zan Israeli agertzeko eguneraño.» Onela dio Idazti Deunak, Jesus, lan egiten zuen bezela, kemen eta indaño azkartzen ari zala eta baita jakintza eta jainkozko doaiez ere, Jainkoari atsegiña emanaz. Ora langileak saiatu bear dutena bere lanetan. Ezdute lan egin bear txingufiak bezala pixka eta geldi geldirik, baizik Jainko eta gizonaren afean azitzeko eran. Gezurtiak bere bizitza emen akitzen dala erakusten dien guziak, gezurtiak emengo zero edo naigabea besterik eztala esaten dienak, beste mundurik eztala erakutsiz. Zorionekoak langileak beste mundurako egiñak dirala siñisten badute. Zorionekoak langile onak baldin badira! Baña alako zoriona iristeko beañoeko da bere lanean aritzea, Jesus, Maria eta Jose ari ziran bezela. Ori iritxiko dezute aiek Nazareten eraman zutenbiziera egiñaz.

Tolosar Marzelino.

O. M. Cap.

ASMAKIZUNAK



Miren neskatiñ tontor luxea bakariñ dala dirudi;
esnatu orde zure begiak; oñen aitatxo or ikusi.

TXINA'TIK

BI ILABETEZ KOMUNISTEN ESKUETAN



A. Dima Soldaduen Agintari batekin.

Ilbeltzaren 15'ean Tolosako Aita Pedro Bautistak biali digu eskutiz bat Aita Dima edo Soloeta'ren befiak emanaz. Baño ura argitaratzeko baimenik ez tigu ematen. Euskeraz ta erderak Aita Dima berak jakitera eman nai duelako. Baño nola ixildu guzia?

Azaroaren 12'an afapatu zuten Komunistak. Ilbeltzaren 7'raño egon da aien eskuetan. Ibilaldi gogofak egin-azten zizkioten; guzia gauez. Gau berean 70 kilometro edo geiago. Egun sail batean ezertxo ere jan gabe. Jateko guzia *mijo* egosia, ez gatz eta ez beste. Gose gogofak ikusi ditu, eskean zerbait eskatuz; baño iñork kupiderik ez. Al zezakenean patata gordiñak afapatuz, gosea ta batez ere egafi amofagafia kendu naiez.—Loa lur gofian; otzak ilko ez ba'zun aruntz-onuntza ibilka gauez.

Bere lagunak eta bera berotzeko egufa bilatu al zuanean sua egiñez ta aren inguruan berotuz.—Bere otoitz libururik etzun; baño efosarioa eman zioten. Aren bidez Anaïen otoitzaldia egunero egiten zun; baita amaika efosario ere. Baño otoitz oiek egin artean ainbeste maxi (burla) ta ixeka eramanez.

Guzien artean *Prantziskaren alaitasuna* galdu gabe egon emen da. Txina'ko lur elkofak zeruko intzak gozatuko ba'ditu odola ere bear zan. Au ere eman du gure Misiolariak iru bider. Iru aldiz zeatu zuten; atofa eta gal tzak ez beste soñeko guziak ere orduan kendu zizkioten ez befiz itzultzeko; iltzen zuten etsia arturik iduki zuten. Neguilaren 21'ean 300 dolar geiago bere askatasunerako Misiolariak bialtzean, lasaxago utzi zuten eta jan obexa goa ere ematen asi zitzaizkion.

Ilbeltzaren 4'ean gaueko amafetan soldaduak ondoan zituztela ezaguturik, igesiari eman zioten. Baño sokalartekoak erdian arturik. Amalau ordur laxterka, baño tafapataka. Ordu erdi batez atxoin eta befiro len baño ere zaloiago. Zortzi zaldi igesi joan ziranei atzetik eldu-ta laxter egin ondoren, aiek iges egitean soldaduen eskuetan erori zan. Ilbeltzaren 5-gafeneko afatsaldean soldaduen nagusi bere ezagunagana eraman zuten. Nagusi arek

aparia berak eman zion; biramonean 35 soldadu zaintzeko emanik Pinglian' era bialdu zuan. Ilaren zazpian ilunabaferako misiotegira irixten zan.

Oraindik zauriak etzaizkio sendatzen; baño ondo dijoa.

Zeruko Argia'ren arpidedunok zuen otoitzetan ez aztu alako neketan dabilten misiolariak. Jaunak bedeinka dezala alako misiolariak dauzkan Misiotegi edefa.

GUAM'DIK

YAUREGIRE



ERE «adiskide» maite eta biotzekoak. Zoriona beti izan bedi zuen biotzen gain...

Ustekabetako befi eder bat artu det azkeneko ontzia etofi zaigunean. Eskualefiko beri edefak eta batez ere nik ainbertze maite duten Baztango txoko polit ortako befiek ziñez xoratu naute... Goratua izan bedi gure

Yaungoikoa ainbertzeko argitasune eta laguntze eman datzuleko azken aldi auetan...

Egunero eskefak Yaungoikoari ematen ari naiz ain boxik zagoztela eta ainbertzeko zoriona zuen biotzen gain yausti dela ikusi dutelarik.

Zorionak bada biotz-biotzetik zuk ere zere bizi-bidea artu dezulakotz eta zorionak zure gizonfoari ere nere aldetik. Yaungoikoak bide ortatik nai zaituzte eta ezin dezakezute gauza oberik egin Yaungoikoaren borondatea baño...

Auxen bakafik naiko zuentzat. Zuen eginkizun guztietan Yaungoikoari lenbizi begiratzea eta Yaungoikoaren legeak agintzen dakune biotz onez betetzea.

Ala biziko bazinete aingeruen parekoak ziñakete aingeru bat zu, eta aingerua zure gizona... Eta Yaungoikoak bakafik daki bi aingeruek zerutik erdietsi bear dituzten eskefak beren bizi guztian...

Non-nai gaiztakerie bertzerik ez dela ageri... Ez axolik izan. Zuek, nere maite oiek, yo beti aitzine zuen bizi bide on eta garbian. Yaungoikoarenak garela nolapait ere adierazi bear dugu munduaren afean, Yaungoikoanganako eginbeafak zintzo beteaz...

Bizi garbi eta zinezko kristauak nun-nai on aundie dakartzki, eta kristau epelak berotzen laguntzen du beti. Ez uste izan zuek egiten dezuten on bidea, estalirik gelditzen dela... Ez, denak oartzen dira. Onak ori ikusi eta gogo obez Yaungoikoari lotzen dira, eta gaixtoak befiz... beren bizitz doa-kabea ez dala agitz ona ezagutzen dute...

Yo bada zuek, nere maite oiek, bildurik gabe aitzine zuen bizi bide or-tatik eta azkenian arkituko dezute Yaungoikoa zuen begira dagoela.

Zorionekoa zu eta zorionekoa zure gizonfoa ere. Yaungoikoak bedei-ka zaitzatela nik nai adinbat.

Agur: otoi ez atzendu zeren eguneroko otoitzetan gure alde Yaungoi-koari eskatzeaz... Guk ere bertze ainbertze eginen bai dugu zuen alde.

Agur: eta agindu nai duzuen guztie zuen

Artzañari.

YAUREGITIK - GUAMERA

Nere aita maite: Afitu naiz afunt zurea artu dutenean. Emen bezalako sorginak or ere bai ote dire? Ta nola yakin tuzu ainbertze befiguk deus ere gaztigetu gabe?

Elizondoko bidean sorginfoentbat bide dagon edo nago...

Dena dela... Yaungoikoak ala nai eta nik ere artu dut nere gurutzea.

Orai badakizu andrefo bat eginik nagoela. Yauregien orai bi etxeko andre gaude: etxeko andre xaara eta etxeko andre gaztia, ama-alabak etxe-ko andre. Yaungoikoak egin duen gauza da au eta Yaungoikoari eskefaz ezin emanez gaude.

Orai amak amesfo bat izen du. Amatxi guzien kontue izeinde baño.

Nunbaitik yakin du or yende erdi biluxie franko ba dela ta yauntzien batzuek bigaliko ote dazkitzun edo ola dabil.

Ez uste izen yauntzi oiek zuretako dirala: ez gaixoa, ez. Yauntzi oiek zure Misio ortan beafian aurkitzen diren aurfoentzat nai lituzke. Zer iduri-tzen zaitzu? Izen duzue artzalerik or?

Ainbertzeko beroa egiten ba du, me-mefoak autetu bearko ditugu eun-kiek, ez? Ya zer gaztigatzen dakuzun?...

Nik ere amai gogotik lagundiko nioke ta nork daki? Bear bada negu al-dera zer edo zer prestatu genezake ama-alaba ok... Ta gero Iruñera bigeli-ko nituzke efanaz: Eup, mutilek: or doazin yauntzi oiek nere frailefoa dagon aldeko yendiaintzet dire. Ez uts egin gero bigeltzen dituzuenian. Otoi Afa-yozko Artzañaz...

Baztan aldetik ba liteke bertze zenbaitzuek ere laguntzia... Ala balitz ez nuke atsegin txafa artiko. Yakin dut bi lagunek lanian asteko asmoak izan dituztela edo... Sorgin porokatuak dire biek...

Agur: oroitzepeinak pileka gure aldetik eta zuk nai duzune agindu Baztan.

Yauregire.

Ilaren 13'en egunean Meza bat emango da
ZERUKO ARGIAREN idazle, irakurle, ta ongile
guztien alde, Antonio Santuaren aldarean.

Ikasi, ikasi..i



Joseba Peño, mofoi zintzoa
limeta pila altzoan dula
erori ikaraz, izu dijoa.



Erlamin gaizto fufundaria,
or datorcio bere burura,
iruditurik ezti-txuria. (1)



«Auxen dek auxen lafitasuna!
Bi eskutatik lasa ba'nengo
ez uke gaur, ez, iges egingo!»

«Erlamin gaizto, ezten zofoetza,
ikaskizun au gaur eman didak:
Mi-gaiztoari (2) erantzun naiak
beti dakaren azken minkotza.»



«Euliak ere azkenerako
pafa egin nai aitun xafari!
Ez aut ez, biziik utzikola!

(1) Ezti-txuri sagafa da. (2) Mi-gaizto—mingai gaizto.

ARATS-OTOITZA

Geldi, otoitz-eske, ezkiñak oiuka.
Argia badoa, badator eguna...

* *

Izar-iruleak egaka diyoaz
Zeru-urdiña izafez osoki yostera,
Afatsalde-lore makurtzera doa
Ta azken ats-urña garaiz ematera.

Geldi, otoitz-eske, ezkiñak oiuka.
Argia bada, badator eguna...

Aingeru zuriek, zerutik yetsiki,
Lorearen atsa biltzen ari dira..
Afatsalde-lore makurtu da oso,
Ta aingeruek itzul Yainko-yauregira...

* *

Geldi, otoitz-eske, ezkiñak oiuka..
Argia badoa, badator eguna...

Zaraya o. m. c.

AITA AKILIN IRIBERTEGI IL ZAIGU



Zeruko Argia'ren irakurleok ezagutzen zenuten. Peru'ko Aita Pasionisten Misio-batutiko beñiak Ark biltzen zizkigun. Napaño-ko Afaitz Ultzama'ko erian jaioa zan. Bataioan Akilino Iribertegi eta Aldaz izena zuan. 36 urte zituan; 19 Pasionisten Alkartasunean sarturik; 12 urte Meza emanik, sei urte beñiz Maraño'go Misiotegian lanean zebiteela. Azkeneko Neguilaran 9'an, Huagala ibaia zaldizigarotzean, urak artu-ta antxe bere bizia galdu du bere Misioko animen onetan. Beñi onek asko mindu gaitu. Eta Zeruko Argiaren irakurleai otoitz bana eskatzen diegu aren animen onetan. (G. B.)

BERIAK

Belgika'ko efege zanaren oitura oroigarri batzuek

Belgika'k galdu duan azkenengo efegea kristau zintzo ta bikaña zan. Bere efegetzak eta bere siñismenak ezañitako eginkizunak ainbestekoak izanafen, batak eta besteak betetzen alegindu zala ezin ukatu. Bere eriotz ondoan, an da emen azaldu dizkiguten oitura ederak, ala diote beintzat.

1914'gafen urtean, guda piztu zanean, alemandafen indar guziak etzuan ikaratu ta bere efiaren afean ipiñi zan esanaz: Jaungoikoa gure alde izango degu, zuzenbidearen atzetik goazelako.

Gudak iraun zuen arte guzian, efegeak ba-zituen bere ordu ta egun ja-kiñak, elizara bere ikustaldiak egin, aitortu ta Jauna artzeko. Bein batean, meza entzuten zegoela, an inguruan bonba bat erori ta lertu zan. Ezin esan alako bildufez bete ziran elizan zeudenak, baño efegea etzan bere tokitik jeiki, etzuen bere otoitza utzi.

Ainbeste lan izanafen, etzuan bere gogaketa edo meditazioa beñiere utziko. Guda-aldi batean, andre agurgari batek eskeñitako gazteluan bizi izan zan efegea. Au egunero oso goiz ateratzen zala, oartu zan andrea eta efegeak gelan zer ote zeukan jakinaia sortu zitzaion. Sartu zan ba bein efegearen gelara eta mai gañean liburu txiki bat ikusi zuan eta bere ofietan gogaketa-saila. Ikufa edo siñalea non zeukan gogoan artu zuen eta ufengo egunean beñiro begiratu zuen andreak. Ikufa auferago zegoan. Irugafen aldiz sartu ta iriki zuen liburutxo andreak eta ikufa beti auferago. Efegeari etzitzaion ba egunik joaten, gogaketa, lanean asi baño lenago, egin gabe.

Igandetako meza ere etzuen beñi ere utziko, naiz bere efiaren egon, naiz kanpoan ibili. India'ra joan zan aldi batean, ibilaldi edefa gertu zioten. Igandea zan. «Gauza bat aztu zaizute, esan zien efegeak: meza. Au gauza guzien aufetik.»

Ilkasbide edefa meza ain efaz uzten duten ibiltarientzat!

Argentina'ko Eukaristi - Batzafa

Buenos Aires'en egingo dan 32'g. Eukaristi-Batzafa edefa izango da noski. Ala esan nai digute noski, an aufetik egiten ari diran lanak. Beste batzafak bezela, oraingoak ere jende asko bilduko du Buenos Aires'en, eta ango katolikoak guzien afean ondo gelditu nai. Gobernuak ere oso pozik ikusi ta ontzat eman ditu katolikoan lanak.

«Eukaristi-Batzar onek, esan du ministro batek, atsegin aundia eman bear digu katoliko geranoi, onelako batzafak Elizari ta katoliko guziori egiten diguten on aundiagatik. Argentina'n bizi diranetatik, geienak katoliko dirala ezin ukatu diteke; onegatik eta legea katolikoan alde dagolako, bear dan begirunea erakutsiko dute noski Batzar egunetan, katoliko ez diranak ere.»

Oso ondo erori dira ministro onen itzak katolikoan artean eta lanerako oraindik geiago berotu dituzte.

Colombia ta Urte Santua

Asko esan nai dute Colombia'ko aldun edo diputaduak artu dituzten erabakiak. Urte Santu ontan Jesukristo'ri osoan ematen zaion omena ta bere izenean egiten diran jaiak ontzat eman eta pozik ikustea erabaki dute. Berak diotenez, Jesukristo alde batera utzi nai bagenu, gizadiaren edesti edo kondairak ez liguke ezer esango, gizadi guzia aren inguruan dabilkelako. Jesukristo da gañera bata besteaganako maitasuna erakutsi ta egiazko azkatasuna ekafi diguna. Beste efiakin batean, Colombia'k ere bere omena egin nai dio Jesukristo'ri.

¡Bai ageftoki (custodia) bikaiña!

Melbourne'ko Prantzisko deunaren elizak Jaunarentzat ageftoki bikaiña egiten ari da, bi metroko goratasuna izango duena. Amerikar andre batek ortarako 6.000 dólár (90.000) franco) utzi dizkio.

Gau ta egun agirian egoten da Jauna eliza ontan eta mezak, bata bestearen atzetik, eguerdiraño esaten dira. Ageftoki au elizako toki guzietatik ikusiko omen da.

¿Munduan zenbat geran?

Jesukristo gurutzean il zanetik, orain arte bete diran emeretzi eunki (siglo) oietan, zenbat zabaldu ote da bere Eliza? zenbat ote gera katolikuok munduan? Ara zer dioten Urte Santuko lanak gertu ta aufera eraman dituztenak.

Europa'n, gaurko egunean, katolikoak 201.855.000 dira; kristau ez-katolikoak 529.575 ta kristauak ere ez diranak 31.340.816.

Goiko amerikan'n, katolikoak dira 52.513.320; kristau ezkatolikoak 85.540.818 ta kristauetak 21.000.130.

Beko Amerika'n, katolikoak 73.050.585 dira; kristau ezkatolikoak 541.984 ta kristauetak 1.552.602.

Africa'n, katolikoak 5.387.678 dira; kristau ez-katolikoak 9.103.725 ta kristauetak 125.574.630.

Asia'n, katolikoak 17.038.874 dira; kristau ez-katolikoak 9.450.545 ta kristauetak 970.354.614.

Latefi Elkartuetan (Estados Unidos) katolikoak

1934'gafengo Official Catholiko Directory'k dienez, ango katolikoak 20.268.404'raño iritxi dira. 1932'g. urtetik onera zenbatu edo kontatu ditezke 32.912 katoliko geiago.

Apaiak ere urte batean geitu dira 1.485 befiakin eta 29.782'raño iritxi dira. Elizak befiz 18.260'raño iritxi dira, bi urte oietan egin diran 108 befiakin

Beste erietako estualdi ta lafitasunak araño eldu badira ere, ez dira ofegatik katolikoek emaitzak gutxitu. Orain bi urte, Sinismen Zabalkunderako (Propagación de la Fe) 770.000 dolar eman zituzten, joan dan urtean befiz miloitik gora igo dira, beren arteko ta kanpoko misiotako eman dituzten dolafak.

Gaxoak artzeko, 638 etxe dauzkate katolikoak. Joan dan urtean, beste bi befi egin dituzte eta bientzat miloi bat dolar bear izan dute.

¡GORA ASKATASUNA!

—¡Gora askatasuna!

—¡Gora libertadia!

—¡Bera agintariak!!! Gora anarkistak!!!

—¡Bera anarkistak!!!

—¡Bera alpefak!!!

—¡Bera nastzaleak!!!

—Zer al da au?

—Nik etzekiat.

—Begira zak balkoitik.

—Kalean bařena ba-zijuaztek mukizu sail bat.

—Oiek burua ederki nasi ta zeukatek. Askatasuna eta libertadea zertarako nai ditek oiek? Lapufetak egiteko eta lanik egin gabe bizitzeko noski.

—Nik ikusi dizkiaten geienak ez ditut efiko langileenetakoak. Geienak alper aundi batzuk dituk. Biraolariak ere bai ta jakiřa oiek ez ditek lanean ari diranean iřork ere agintzea nai. Alkatea ere ez ditek asko maite izango, artarako afazioia izan ta bein bařo geiagotan kartzelan sartu izan dizkik eta.

Agintariak beařezkoak dituk ba, bai lanetan, bai efietan. Esaterako burni-bidea egiteko langile asko bear dituk. Ofetarako burnia meatoki edo minetatik atera bear dek. Meatokietan beařezkoa da langileen lanak batera jotzea; nola langilen lanak bateratu ezpada norbait agintari, norbaitek lana nola egin bear dan eta non egin bear dan ezpadu agintzen? bata leku batean zuloa egiten asiko litzeke, bestea beste toki batean.

Bařura sartuta oraindik batasun geiago bear dek. Andik atera ta bere zikinkeritik garbitzeko eta burnia utsik uzteko ola edo pabrikak bear dituk. Pabrikak egiteko buruak bear eta onela argi ta garbi zia-gok eztagola burnibide bat egiterik buru edo agintaririk gabe. Lanetarako agintariak bear beraz.

—Bai, naiko argi zia-gok.

—Gora anarkistak!!!

—Bera!!! Bera!!!

—Jo!!!—Jo!!!—Jo bildufik gabe!!!

—Ai! Ai! Ai!

—Ez jo!!!

—Bera!—Gora!—Bera!!!

Ortxe ziaudek efiko mutilak. Anarkisten atzetik zetozek mutilik geienak. Atera adi balkoira.

—Anarkistak lafi zebiltzek. Zer gertatu bear dik or? Ara, guardazibilak eldu dituk. Ba zijuaztek danak igesi.

ASMAKIZUNAK



Matin Mikolas nekazaria aitzur-lanera zijoan:
Pinto txakura ortxen daukazu nagusiaren ondoan:
Bañan xagua lengoz gañera esango nontsu dagoan?

—Nik ere gogoan eukiko diat eta ori bera egingo diat Jaungoikoaren ordezkoi bezela begiratuaz.

ARBELAITZ, O. M. Cap.

—Guazen bafura.

—Guazen.


—Orain agintaririk izan ezpalitz zer gertatuko uken?

—Jakina, txakur aundiak txikia ondatu. Efiko mutilak anarkistak il.

—Ori gertatuko ukek beti, aundiak txikia ondatu: beraz gizartean agintariak izatea bearezkoa dek Jaungoikoak gizartekoak egin gaituan ezker, Jaungoikoak agintariak izatea nai du.

Bai bere aginduak egitea ere. Zertarako izango ginduzkek agintariak aginduak egitera bear tuak ez egon ezker.

—Alaxen dek. Oregatik gaurtik efiko agintari, alkateai eta begimena aundia euki eta Jaungoikoaren eskutik agintea edo agintaritza artu dutela ez diat aztuko.



ARDO-EGINTZA



ARDOAK EGITEN DIRA

Ardotegiak Alcazar de San Joan'en

(Ciudad Real)

Loidi ta Zulaika

Urutidazkin edo Telegrafoa: «LOIDI»

ETXE ONEN LAN NAGUSIA

MEZA SANTURAKO ARDO ZURI GOZOA EGITEN DA

Iruña'n, (Mercaderes, 13) Eusebio Garicano, Ordezkaria.

Donostia

ARTILEZKO EUNAK ERLIJIOSOENTZAT

Juan Romeu Voltá'ren Semia.

Praile ta monjentzako eunak, artilezki edo estameñak, eun-me merinoak, kasimirezkoak, sargak, anaskoteak, eun lodiak, eta tamis'koak. Nai dan zabaltasun eta margotakoak. Margo (koloreak) iraunkorak dira.

Sabadell (Barcelona), Illa kolean, 6'na. 2486'gafen urutizkiña. «Rolana» izenean arkitzen du urutizkiña.

Praile ta Monjari eskatzen diegu, eskatu nai duten eun-gaiaren zatitxo bat bialtzeko afen. Eta zein margo ta zein neuritakoak edo zer zabaltasun eta loditasunekoak nai dituzten adierazteko. Ofela agudo ta zuzen bialduko zaiote eskatzen digutena.

Luzera aundia emango diezu zere eliz-argizariei,
argizari bereziak erosten ba dituzu.

Kintin Ruíz de Gaunaren Semeari

GAZTEIZ'EN (Vitoria-España)

Ortarako eskatu berari «Kapitel Gauna».

Itxaso bestealdera ere bigaltzen dira.

ASPAIME

Garatxak (pastilak)



Zertaz egiñak

Gozagafia esne ona euneko bost; regaliz zumoa euneko bost, diakodio zumoa, mileko iru; bei-muñ zumoa, mileko iru; Gomenol, mileko bost; gozagari menta-anizaua, garatx bat egiteko naikoa.

ASPAIME

Erabat kentzen dute:

EZTULA

ondatzen dituzte-ta este-estutze, mafanta, eztafi ta zintzur miña, eztafigaitzeko ta biriketako, alpeta, itz batean, asnastoki oso-roko miñak.

ASPAIME GARATXAK beste ezagun guzien gañetik daude. Ezta egoki ta jakintsugorik. Agorako goxoak. Sendagai ufintsu ta ariñen zumoa berak bakafik dute. Ez tira usteltzen Eta beti azkar, bizi ta agudo erasotzen die asnas-bidetako gaitzai, ortik bai dator eztula ta atsanditzea.

ASPAIME GARATXAK agintzen dituzte sendalariak.

ASPAIME GARATXAK nai dituzte gaxoak.

Beti eskatu egiazko «Pastillas Aspaime» ta ez artu oien ordezeko, ezer gutxi balio dutenak.

Aspaime garatxak pezeta batez *kaja* saltzen dira botika ta *drogeria* nagusienetan eta bidenabar utsean ematen da beste *kaja* bat sakelean erabiltzeko ondo datofena.

SOKATARG sendagaitegiko Sendagai Berezia. LANTEGIA TER KARIKAREN 16^{ean} Ufutzizkiña 50.791, BARCELONA.

BEAR-BEAÑEZKO OARA.—Aspaime garatxakin bezin agudo ta ofen ondo EZTULA beste oien antzekoakin ezin dala kendu, ta gaurkoan oiek bezalakorik eztagoala adierazi ta siñetsiazteko SOKATARG Sendagaitegiak ara zer egin duen.


Naikoa dezu SOKATARG sendagaitegiari, iragarki auxe ebaki-ta bialdu, Berortako bialiko dizkitzu «Pastillas Aspaime» oiek utsean. Ortarako ebaki au karta-estalki ide kiaren bafuan sartu bost zentimoko selu batekin, ta gañetik bi zentimoko selua jafi.

Salgai dauzkagun liburuak

Nere Laguna, Aranaz'tar Lezo'ko Jose A'k. egiña. Iru liburu dira. Iruetan urteko igande guzietako ebangelioaren azalpentxo bat dakar. Euskera adikor eta xamufean ebangelioaren adibide efaz-efaza egiten du. Igandetako ebangelioen itzaldiaz landara zenbait jaietarako itzaldiak ere ba-dakizki, Ama-Birjiña Sortze-Garfbikoaren, San Jose'ren, Andre Maria'ren Jasoerakoa eta Domine Santu egunekoa.

Liburu bakoitza 5^{na} laurleko edo pezetaz eta irurak 12 laurlekoz ematen dira.

Prantzisko Santuaren Irugañen Ordenako Ikasbidea. Kristau Ikasbidearen antzera galde ta erantzupenetan Irugafendarantzat egiñik dago. Beroien Lege edo Eregla oso argi ta egoki itz gutxitan ortxe adierazten zaielako. Bakoitza iru txakur txikiz eta eunka amar laurlekoz saltzen da. Irugafendar guziak bear lukete.



Silabario del Cristiano, por Monseñor Francisco Oliati, Milan'go Biotz Deunaren Ikastol Nagusiko Irakasleak egiña ta Cipriano Montserrat apaiz, Filosofia'ren eta Teologiaren Irakasle-buruak gaztelerez jarria. Italerazko amargaren argitalditik itzulia dago. Zabal eta luzean amabi terdi emeretzi terditako ditu. VIII-302 orialde dauzka. Ingi azalez, lau laurleko (pezeta) eta eunezko azalaz egiñak 6'na laurlekoz. Luis Gili, editor, Barcelona.

Liburu onen egileak erlijio gaietan ez-jakin guziei argitasuna eskeintzen die. Baño ezer ez dakitenai bakarik itzegiten dienik ez uste izan. Beste gai askotan jakintsu diran asko, erlijio gaietan ere ondo jaririk uzteko egokia da; geiago dana erlijio gaietan ere ondo ikasiak, Silabario ontan argitasun aundia arkituko du, gure erlijio santuaren egi geienetaz. Kristau geienak Eliza-ataria besterik edo Eliza kanpotik besterik eztute ezagutzen. Liburu ontan ordea, Elizaren bafura geramazki. Ango Siñiskai, Sakramentu, graziaren zabalketa, Eliza, Liturgia eta apaizgintza eta argi-argi adierazten ditu. Elizaren eskuz Jesu Kristok damazkigun ondasun aundiak sustraiez ezagutu nai ditunak; bere biziara egi auen ariora zuzendu ta besteai oien befiak argi eman nai dizkietenak, irakufi bezate. Egiak era berian jakitera emanik dauzka oso; atsegin zaigu irakurleoi onen befia ematea; gaztelerara ondo itzulia dago ta Gili jaunak argitara ematen dakin txukuntasunean agertua.

El Jardin de los Misterios. Por el P. Mauricio Rigaux, S. J. Frantzerazko bigaren argitalditik itzulia. Lengoaren aunditasunekoa; 224 orialde ditu; Azalik gabe 3 laurleko eta azalezkoak 4'na laurlekoz Luis Gili'k saltzen du Barzelona'n, Corcega 415. Gure erlijioeko egirik aundienak iduripenaren asmaketarik berezienaz nasirik dijoaz irakurkizun ontan. Liburu bakoitza, egileak gure auean goratzen duen etxe bat bezala egiten zaigu. Onen egileak goratu duenean, etxearen ofiari ta ormak ari biziz bezala egi sendoz egiñak daude; baño etxearen edergaluak ta inguruko lorategi polit eta atsegingariak egileak asmatuak. Edergalu oiek geienean ondo ezafiak eta ondo ematen dutenak, egiak edergaluaz ondo alkartzen dira-ta. Egi oiek lendik ezagutzen ez dituenak; zein diran ere ez du asko sumatuko zenbait tokitan; baño azkenean egi asko ta askoren ikasle ta irakurle gogatsua itzuliko da. Gure izate bikia nola dan, graziak gure animari damaion bizi befia, otoitzak edo eskariak zenbat dezaken, Ama-Birginiaren eta deun santuen bitartekotasunak zer laguntzak dakarzkiguten, norberaren eginbideak nola laguntzen duten, geren griñak garaitzeko egin bear degun lana eta; ementxe begiz jotzen dira. Gure gazte ipuizaleai eskuratzeko liburu bai egokia!

ALDIKO LITURGIA

Pazko ondoko Irugarren igandea.—«Lurbira osoa jai egiozu Jaungoikoari, Alleluia (Au poza!); Bere izenari Salmoa esaiozute, alleluia; goraldia emaiozute Aren aipamenari, alleluia, alleluia, alleluia» (Introit). Pedro Apostolu doneak Epistolan dasaigu: «Bestefiko afotzai bezela eragiten dizuet, aragiaren gogoetai uko egiozuen; oiek animaren kaltetan dabiltzelako.» Jaungoikoaren erdezkoak lufean egiten ditun edozein agintariri esanak egiteko eskatzen digu. Jaungoikoak ori nai du. Jaungoikoaren mirabe egiazko agertzea ta kristauen kontra ari diranai agoa istea. Ebangelioak gogora dakarkigu Jesusek bere Apostoluei azken aparian esan ziela: «Pixka bat eta ez nauzue ikusiko; eta beste pixka bat eta ikusiko nauzue... «Eta itz oiek adierazteko esan ziela: «Mundua poztuko da; zuek befiz naigabez beteko zerate; baño zuen naigabea pozetan biurtuko zaizue... orain naigabea daukazute; baño beñiro ikustera emango natzaizue, ta zuen biotza pozez beteko da.»

Pazko ondoko laugarren igandea.—Mezaren Asieran (Introit.) Elizak Jaunari kantatzera eragiten digu, Elizari Jaunak alako doaiak egin dizkiolako efi guzien onerako eta ofen eskutik santutasuna jasotzera jende guziak datozelako, Sakramentuen bidez ofela baturik dauden efiak Jaungoikoaren aginduak betetzera jo bear. Oiek betetzeko gogoa, gero emango zaigun sari aundiaz gure biotzetan sortzeko, eskatzen zaio Mezako otoitzean. Jakob Apostoluak Epistolan gogorazten digu: Zeruko doaiez, Jaungoiko gozatsua-ren seme-alaba egiñik gaudela. Berorengatik eztiogula asafeari jabetzen utzi bear; Jaungoikoak bere garaian bakoitzari berea emango diolako. Gozatsu izateak zeruaren jabe egingo gaitula. Ebangelioan esaten zaigu: Jesusek «bañoa» Apostoluei esatean, naigabez mututurik gelditu zirala «Nora zoaz» galdetzeko bildufez. Baño Jesus berak esan ziela: «On zaizue, ni joan nadin, bestela Poztutzalea etzaizue etofiko-ta: ni baldin bañoa, orde, ura bialdu ko dizuet.» Jesus'ek bere ordezko Poztutzalea Espiritu Santua, agintzen die.

Pazko ondoko boskañen igandea.—Mezaren asieran Isaias'en itzaz efi alde guztiei eskatzen die Elizak Gure Eroslearen garaipena gorapartzeko: Jaunak bere efi askatuko duelako». «Jaungoiko, on guziak darizkitzuna, gure eskariak emaguzu: on diranak zuk gogorazirik, gogoan izatea eta zuk lagundurik beroiek egitea» (Otoitza). Epistolan Jakobo Apostoluak esaten digu: askatuak izan geranak Jaungoikoaren itzen entzuleak izatea eztegula naikoa. Entzuna betetzeak, geren egite onak zorioneko egingo gaitula. Siñismen zerura daramana, egitez jantzia bakafik dala erakusten digu Apostolu onek. «Ume-zurtzai eta alargunai ikustaldiak egitea beren bearorduetan, eta mundu ontatik (gaiztakerietatik) garbi gordetzea». Jesus'ek bere Apostoluei azkeneko aparian esandako itzetatik artuta da gaurko Ebangelioa. Jesus'ekin bizi ziran artean, Jaungoiko Aitari eztiote ezer eskatu. Jesus'ek bear zutena ematen bai-zien. Baño bakafik gelditzen diraneko esaten die: Nire izenean eskatzen diozutena emango dizute. Eskatu ta iritxiko dezute, zuen poza bete-betea izan dedin.» Eta Jesus'ek itzematzen die eskatua Aitak emango diela, «Aitak maite zaituelako, eta Aita gandik atera nintzela siñetsi dezuetakoa.» Eskaiogun, ba bear degun guzia.